



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 14a

86. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/ITP-00017. Interpelazioa, Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (3. or.).
- 11-23/CDP-00011. Osasunari buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- 11-24/POR-00228. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoari buruzkoa. Ibai Crespo Luna jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00229. Galdera, egora erregularizatugabeen dauden etorkinen desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00230. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan udarako giza baliabideez egindako kudeaketari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00286. Galdera, Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterlan ekonomiko-finantzariorako tresnari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/PES-00287. Galdera, Caparrosoko Kristoren Elizari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00288. Galdera, Luzaideko ibiltokiaren eraikuntzari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00289. Galdera, funts publikoak kontzertuak finantzatu edo diruz laguntzeko erabiltzeari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00290. Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak prebentzioko lurralde-ordezkariek sartzeari dagokionez proposatutako irizpideei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00291. Galdera, kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari buruzkoa. Javier Arza Porrás jaunak egin du (11. or.).

- 11-24/PES-00292. Galdera, jakiteko ea Orreagako Errege Kolegiatara gurpil-aulkian sartzerik dagoen. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00293. Galdera, INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00294. Galdera, "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00295. Galdera, fibromialgiako paziente batek itxaron beharreko denborari buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00296. Galdera, erditzeak Lizarratik Iruñera bideratzeko arrazoiei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00297. Galdera, osasun-garraioa baloratzeko baliatzen diren kalitate-adierazleei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00298. Galdera, taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez Taxiari buruzko Foru Legea alda dadin Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00300. Galdera, migratzaileen harremana hobetzeko neurriei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00301. Galdera, Bidean ente instrumental deklaratzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00302. Galdera, Bidean enpresa publikoa abian jartzearen kostu ekonomikoari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (17. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/ITP-00017. Interpelazioa, Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa**

*ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako interpelazioa, Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilari Félix Taberna Monzón jaunari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Parte-hartzea funtsezkoa da politika publikoak eta horien kalitate demokratikoa hobetzeko, eta erakundeengan konfiantza sortzen laguntzen du. Eta funtsezko herritar-eskubidea da jardunbide txarrak eta ustelkeria desagerrarazteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroan parte-hartzearen arloko politika orokorrari buruzko interpelazio hau aurkezten dugu.

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## 11-23/CDP-00011. Osasunari buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak

Nafarroako Parlamentuak, 2024ko maiatzaren 31n egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hauek onetsi zituen, osasunari buruzko Osoko Bilkura monografikoa dela-eta:

### «Lehena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bete ditzan Osasun laguntza espezializatuko itxaronaldien bermeei buruzko uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legean ezarrita dauden gehieneko itxaronaldiak:

1. 30 eguneko itxaronaldia, gehienez ere, espezialistarekin lehenengo hitzordua izateko (10 egunekoa, baldin eta lehentasunezko kontsulta bada).

2. 120 eguneko itxaronaldia, gehienez ere, prozedura kirurgikoetarako.

3. 45 eguneko itxaronaldia, gehienez ere, larrialdikoak ez diren proba diagnostiko programatuetarako.

### Bigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du bete dezan Osasuneko kontseilariaren 132/2014 Foru Agindua, abenduaren 1ekoa, Nafarroan bularreko minbizia prebenitzeko programa berrantolatzeak, zeinak ezartzen baitu:

1. Mamografiak 24 hilabete behin egiten direla.

2. Programan sartzeko adina 45 urtekoa izanen dela.

### Hirugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Bidean SL enpresa publikoaren eskueran ipin ditzan, 2025eko lehen seihilabeteak, beharrezkoak diren baliabide guztiak, bermatuko dutenak Nafarroako Osasun Sistema Publikoko osasun-garraioko zerbitzua egitea eta abiaraztea.

### Laugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Osasun Departamentutik buztada eman diezaion berrikuntzari, bai Erosketa Publiko Berritzaileko prozesuen bitartez ekipamendu eta teknika berriak eskuratuz bai adimen artifizialean oinarrituriko garapenen bitartez, zeinak propioak nahiz sektore pribatuko enpresenak izan daitezkeen.

### Bosgarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Osasun-arretaren irisgarritasuna telemedikuntzaren aplikazio ugarien bitartez areagotu dezan, teknologia berrien garapenari eta horiek aplikatze eta prozesatzean zeresana duten osasungintzaren barneko nahiz kanpoko profesionalen prestakuntzari esker.

2. Osasun Departamentua premia dezan jardun horrekin segitzera, dauden hautabideetako bat delakoan, berariaz zehazten diren irizpideak betetzen dituzten gaixoak Nafarroako arreta-sare guztian –oinarrizko laguntzan nahiz ospitalekoan– artatzeko prozesuaren barrenean.

### Seigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du osasun-laguntza espezializatuko itxaron-zerrendak laburtzeko talka-plan baten garapenean sakondu dezan, ekinaldi integral eta ildo aniztun baten bitartez, pertsonari bermatuko diena garaiz eta moduz artatuak izatea, eta honakoak barne hartuko dituena:

– Oinarrizko osasun-laguntzaren erabaki-ahalmena indartzea, bigarren arreta-mailarako igorpenak beharrik gabe egitea ekiditeko.

– Itxaron-zerrendetan lehentasun-irizpideak ezartzea, prozesuen larritasunaren edo baliaezintasuna eragiteko ahalmenaren arabera.

– Lantalde-efizientziaren kontrola.

– Kasua bada, ospitale-ohene kopurua igotzea, espezialitate kirurgikoen kolapsoa ekiditeko moduan.

– Lehenbiziko kontsultaren erabaki-ahalmena sustatzea, eta bigarren eta gehiagorren hitzorduen ekarpena ebaluatzea.

– Azterlana, bereizmen handiko zirkuitu integratuen ezarpenerakoa, zeinek prozesu kateatuak egiten baitituzte, kasu definituetan diagnostikoa, probak, esku-hartzea eta alta-ematea uztartuz, ekintzen efizientzia maximizatzeke.

– Auditoretza, itxaron-zerrendarik eta itxaronaldi-bermeei buruzko legea urratzen duten kudeaketari eta jardunari buruzkoa, xedetzat izanen duena haietako zailtasunak aztertzea eta

onbideratze-neurriak eta/edo beharrezkoak diren indargarriak proposatzea.

#### **Zazpigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du urtebeteko epean aurkez ditzan plan zuzendariak eta antolamendukoak, modua emanen dutenak osasungintza-politikak, azpiegiturak, ekipamendua eta giza baliabideen kudeaketa planifikatzeko, honako helburuei heldurik:

– Parke teknologikoaren eta osasungintzako azpiegituren zuzkidura eta egoera.

– Ekipamendua eskuratzeko eta osasungintza-azpiegituretako inbertsioari buruzko erabakiak hartzeko gobernantza-eredua.

– Goi-teknologiako ekipoen zentzuzko erabilera, "medikamentuaren zentzuzko erabilera" konzeptuaren ildotik ulertuta.

– Plantillen tamaina eguneratua eta onena eta horien lurralde-banaketa arreta-mailen, osasun-barrutien eta osasun-zentroen artean, giza baliabideen antolaera hobetzeko.

#### **Zortzigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Oinarrizko Osasun-laguntza birfundatzera eta hori osasun-sistema publikoaren ardatz edo oinarri bihurtzera, helburu zehatzei heldurik, zeinek bideragarri eginen baitute ereduaren garapena hamabi hilabeteko epean hastea eta 2025eko Nafarroako aurrekontuetan jasota egotea beharrezkoa den finantzaketa. Horretarako, egokitzat jotzen da:

– Profil profesionalak ugaritzea (psikologia, fisioterapia, lan-osasuna, nutrizionistak, podologia...), giza eta diru-baliabide egokiak paratuz.

– Bermatzea bertako langileek beren lanpostuan iraun dezaten, erabiltzaileei emandako arretaren luzetarakotasuna (fidelizazioa) errazteko.

– Kupoak doitzea, arreta presentzial eta integrala errazteko.

– Lantaldeak osatzea, haiek beren arreta-jarduerak egin ahal izateko moduan, arreta soziosanitarioaz, osasunaren sustapenez, lan-osasunaz,

osasun komunitarioaz, irakaslanaz eta ikerketaz gain.

– Erabaki-ahalmena hobetzea, prestakuntza berariazkoa emanez gabeziak dituzten alorretan, beharrezko ekipoen erabilerarako trebetasunetan, eta arreta koordinatuz mailen artean.

– Efizientzia eta ahalmena aldeztea, barruti-antolakuntzak garatuz, oinarrizko osasun-eskualdeen multzo bati laguntza emateko honelako zereginetan: larrialdiak, pediatria, zainketa aringarriak, kirurgia handi anbulatorioa, etxeko ospitalizazioa, lan-osasuna, osasunerako hezkuntza, kudeaketan laguntzeko langileak, edo oinarrizko osasun-laguntzako lantaldeekin haien beharren arabera adosten direnetan.

#### **Bederatzigarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du:

– Eguneratu dezan Nafarroako Osasun Mentaltaren Plan Estrategikoa, arreta-eredu komunitarioan sakontze aldera, oinarrizkoa izaki nahaste emozional guztien prebentzio eraginkorra gauzatzeko eta ongizate psikikoa egiazki indartzeko.

– Bultzada eman diezaien suizidioaren prebentziorako programei eta nahaste larrien detekzio goiztiarrari, lehentasunezko jardute-helburutzat harturik emakumeak, haurrak eta nerabeak.

– Jangela terapeutiko bat susta dezan elikadura-jokabidearen nahasteak dituzten gaixoentzat, beste terapia edo tratamendu batzuen osagarri gisa, ospitaleratzearen eta tratamendu anbulatorioaren arteko erdibideko ekite-modu bat eskainiko duena.

#### **Hamargarrena.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du departamentuarterako batzorde bat sor dezan, osasunean eragina duten faktore sozialen azterketa eta diagnostikoa egiteko».

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00228. Galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoari buruzkoa***IBAI CRESPO LUNA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ibai Crespo Luna jaunak egindako galdera, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Nafarroako Plan Estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ibai Crespo Lunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura, Kirol

eta Turismoko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuaren bidez, Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoa taxutzen hasi da.

Institutuaren berregituraketa aintzat hartuta –non osasunaren eta jarduera fisikoaren ikuspegia jasotzen baita–, eta osasun mentalari, inklusioari, berdintasunari edo jasangarritasunari kasu ematearen erronka handia ikusita, plan berri honek garrantzi handia dauka, kirolaren sektorearen beharrezanean erantzun bat emanen dieten ekintzak planifikatzeari begira.

Horregatik, honako hau galdetzen dugu: Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer lortu nahi du Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Plan Estrategikoarekin?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Ibai Crespo Luna

## 11-24/POR-00229. Galdera, egora erregularizatugabeen dauden etorkinen desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioari buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, gora erregularizatugabeen dauden etorkinen desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Gizarte Zerbitzuen Zorroak adierazten du desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioa zerbitzu bermatua dela Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona guztientzat.

Egoera erregularizatu gabeen dauden migrazioaileek zergatik ezin dute desgaitasuna eta mendekotasuna baloratzeko zerbitzua erabili?

Iruñean, 2024 ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-24/POR-00230. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan udarako giza baliabideez egindako kudeaketari buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan udarako giza baliabideez egindako kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztzen du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun-arloko formakuntza espezializatua egiten ari diren pertsonen (BAME, BAPE, BAFE...), zeinek 2019-2020 ikasturtean hasi baitzuten formakuntza-prozesua, pandemia dela-eta ikusi zuten aldatu egin zirela ohiko epeak, halako moldez non irailean amaitu baitzuten egonaldia, ezen ez, ohikoa zen moduan, maiatzean.

Arazoa da langile horiek, beren osasun-formakuntza espezializatua amaitu berri zutela, sarritan erabiliak izan direla udako oporraldiak dituzten Osasun Sistema Publikoko osasun-profesionalak ordezkatzeko. Aurten ez dago plantillako langileak ordezteko kontratazioetarako halako izangairik, profesional horiek oraindik ere formakuntza egiten ari direlako.

Osasuneko ministro Mónica Garcíak Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren osoko bilkura berezia deitu zuen ekainaren 5ean, Oinarrizko Osasun-laguntzan uda honetan gertatuko den osasun-profesionalik ezaren arazoa modu monografikoan aztertzeko.

Osasuneko kontseilariei zuzendutako gutun batean, ministroak eskatu zien bilera baino 48

ordu lehenago igor zitzaten udari begira Oinarrizko Osasun-laguntza kudeatzeko xedez taxutu dituzten planak, bilera hori "emankorra" izan dadin.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Osasun Departamentuak zer neurri edo plan ari da ezartzen edo ezarriko du udari begira, plantillako langileek oporrak hartu ahal izanzen dituztela bermatzeko eta gure herrietan udan zehar osasun-laguntzarik onena mantentzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

---

## **11-24/PES-00286. Galdera, Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterlan ekonomiko-finantzariorako tresnari buruzkoa**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterlan ekonomiko-finantzariorako tresnari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Noizko egonen da prest Riegos de Navarrak Price-Waterhouse-Coopers-i (PwC) Nafarroako Ubidearen proiektuaren azterketa ekonomiko-finantzarioa egiteko enkargatu zion tresna?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui



## 11-24/PES-00287. Galdera, Caparrosoko Kristoren Elizari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Caparrosoko Kristoren Elizari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer plan darabil gogoa Caparrosoko Kristoren Elizaren egoerari aurre egiteko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00288. Galdera, Luzaideko ibiltokiaren eraikuntzari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Luzaideko ibiltokiaren eraikuntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeko kideek iragan apirilaren 24an egin zuten Donejakue Bidearen etapan eta Frantziako Donejakue Bideari buruz maiatzaren 29an egin zen lan-bilkuran, Frantziako Donejakue Bidearen Elkarleen Federazioaren ordezkariak eta Nafarroako Donejakue Bidearen elkarreetakoek adierazi zuten kezkatuta daudela Luzaide aldean bidearen zati batek erromesentzat duen arriskua dela-eta. Halatan, ibiltoki bat eraikitzea proposatzen dute, erromesek arriskurik gabe egin ahal izan dezaten zati hori, iguera handi bat egin behar izatea dakarren ibilbide alternatibo bat ekidinez.

Nafarroako Gobernuak ibiltoki hori aurten eraikitzea aurreikusten al du?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00289. Galdera, funts publikoak kontzertuak finantzatu edo diruz laguntzeko erabiltzeari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, funts publikoak kontzertuak finantzatu edo diruz laguntzeko erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Erabili al du Nafarroako Gobernuak funts publikorik Marc Anthonyren eta Luis Miguelen kontzertuak diruz laguntzeko edo finantzatzeko, zuzenean edo NICDOren bidez? Hala izan bada, zenbat diru bideratu da horretara?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00290. Galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak prebentzioko lurralde-ordezkariek sartzeari dagokionez proposatutako irizpideei buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak prebentzioko lurralde-ordezkariek sartzeari dagokionez proposatutako irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Prebentzioko lurralde-ordezkariek figurari buruzko 11-24/PES-00218 espediente-zenbakiko galdera idatziari emandako erantzunean, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak adierazi du EH Bilduren eskaria ikusita hobekuntza proposamen teknikoak igorri dituela Eskubide Sozialetako Departamentuko Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusira, enpresen hautaketara eta emaitzen ebaluaziora bideratuak, 2024ko deialdian sartzeko. Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut:

Zeintzuk dira eta zertan dautza Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institu-

tuko Lan Osasunaren Zuzendariordetzaren hobekuntza-proposamenak?

Proposatutako neurriak 2024ko deialdian sartu dira edo sartuko dira?

Baldin eta proposatutako neurri guztiak edo batzuk sartzen ez badira, zergatik ez dira sartuko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

---

## **11-24/PES-00291. Galdera, kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari buruzkoa**

*JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrask jaunak egindako galdera, kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak hainbat prestazio kudeatzen ditu, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko hala behar duten herritarrei. Prestazio horiek kudeatzeko eta ordaintzeko denborak garrantzi handiko faktorea dira baliabide honen eraginkortasunerako. Hori dela-eta, honako hau galdetzen dugu:

Kotizazio gabeko pentsioei, errenta bermatuari, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari eta etxebizitza alokatzeko osagarriari dagokienez:

- Zer sarrera-data dute gaur egun baloratzen ari diren espedienteek? (aipatutako 4 prestazioetako bakoitzean).

- Zenbat denbora behar da, batez beste, 4 prestazio motetako bakoitza ordaintzen hasteko, behin prestazioa onartu ondoren?

- Jada ordaindutako zenbat prestazio erreklamatu ziren 2023an itzultzeko? (prestazio-motaren eta erreklamazio-arrazoien arabera). Zer itzulketamodu planteatzen dira aipatutako 4 prestazio horietako bakoitzerako?

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrask

## 11-24/PES-00292. Galdera, jakiteko ea Orreagako Errege Kolegiatara gurpil-aulkian sartzerik dagoen

*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, jakiteko ea Orreagako Errege Kolegiatara gurpil-aulkian sartzerik dagoen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Orreagako Kolegiatara ba al dago gurpil-aulkian sartzerik? Erantzuna ezezkoa bada, Vianako Printzea erakundeak neurriren bat aurreikusi al du gabezia hori konpontzeko, betiere Kolegiataren zuzendaritzarekin lankidetzan?

Iruñean, 2024ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00293. Galdera, INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilari Rebeca Esnaola andreari, idatziz erantzun diezaion:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak zer balorazio egiten du Liderren Sarea programaren barruan INDAFek Espainiako Kirolaren Elkartearekin batera abiarazi duen prestakuntza-ikastaroari buruz?

Zenbat pertsonak egin dute ikastaroa edo eskatu dute izena ematea?

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

## 11-24/PES-00294. Galdera, "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxi-

kita dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari esleitutako Europako funtsen partidetan, bada bat "ACD 5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan" helmugako turismo-jasangarritasunerako Plana izeneko, 5.830.000 euroko finantzaketa esleiturik duena.

24-03-31n 183.732 euro ordaintzeko betebeharrak zegoen partida horretan.

Zer aurreikuspen darabil Nafarroako Gobernuak partida hori betetzeko –adierazi geratzen diren urteetarako programazioa–, eta zer gastukontzepturi ekitea aurreikusten du?

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

## 11-24/PES-00295. Galdera, fibromialgiako paziente batek itxaron beharreko denborari buruzkoa

IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, fibromialgiako paziente batek itxaron beharreko denborari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun diezazkion:

Kontseilariak ba al daki zein den fibromialgia duen paziente batek itxaron behar duen batez besteko denbora kontsulta baterako?

Galdera albiste honetan oinarrituta egiten dut:

<https://www.noticiasdenavarra.com/sociedad/2024/04/21/llevoesperando-revision-ano-medio-8138423.html>

Zein da kontseilariak egiten duen balorazioa eta zein irtenbide emanen du departamentuak?

Iruñean, 2024ko ekainaren 5ean

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

## 11-24/PES-00296. Galdera, erditzeak Lizarratik Iruñera bideratzeko arrazoiei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, erditzeak Lizarratik Iruñera bideratzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

11-24/PES-00243 galderari emandako erantzunean azaltzen da 4 erditze bideratu zirela García Orcoyen ospitaletik Nafarroako Ospitale Unibertsitariora "García Orcoyen ospitaleko Ginekologia Zerbitzuaren profesionalen eskasiagatik, ezin zelako segurtasun osoz bermatu ohiko jardueraren eta guardien estaldura".

11-24/PEI-00142 informazio-eskariari emandako erantzunean, berriz, honako hau adierazten da: "2023ko azarotik 2024ko urtarrilera bitarte, Lizarrako García Orcoyen ospitaleko Ginekologia eta Obstetria zerbitzuko guardiak egunero egon ziren estalita presentzia fisikoko ginekologo batekin eta guardia lokalizatuko ginekologo batekin".

Egunero guardiako 2 ginekologo egonik (bat presentzia fisikokoa eta bestea lokalizatua), zer-gatik bideratu ziren 4 erditze horiek Iruñera, eta beste batzuk artatu ziren, berriz, Lizarran?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Leticia San Martín Rodríguez

## 11-24/PES-00297. Galdera, osasun-garraioa baloratzeko baliatzen diren kalitate-adierazleei buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, osasun-garraioa baloratzeko baliatzen diren kalitate-adierazleei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak zer kalitate-adierazle erabiltzen ditu gaur egun Nafarroako osasun-garraioaren zerbitzua baloratzeko eta zeintzuk erabiliko ditu Bidean osasun-garraioko enpresa publiko berrian?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

---

**11-24/PES-00298. Galdera, taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez Taxiari buruzko Foru Legea alda dadin Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruzkoa**

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak egindako galdera, taxi-lizentzien eskualdaezintasunari dagokionez Taxiari buruzko Foru Legea alda dadin Arartekoak egindako gomendioari eta iradokizunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniain jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2023ko abenduaren 13an, Q23/873 kexa-espeditatea amaitu zen, Lurralde Kohesiorako Departamentuari honako hau iradokita: "Taxiari

buruzko Foru Legea alda dadin, baliorik gabe uzteko lizentzien eskualdaezintasuna, zeina salbuespenez ezartzen baita Iruñerriko taxi-zerbitzuen prestazio bateratuaren eremuan sartzen diren udalerriei dagokienez".

Taxiari buruzko urriaren 30eko 21/201/ Foru Legearen aldaketaren gaineko justifikazio-oroitidazkian ohartarazten zen, berriz, lizentzien eskualdagarritasunari buruzko salbuespen horren balizko lege-urratzeaz, justifikaziorik gabeko tratu berezia dakarrelako.

Azkenik, jakin dugu Lurralde Kohesiorako Departamentuari bidali zaiola Iruñerriko Mankomunitateko Batzorde Iraunkorrak aho batez onetsitako akordioa, salbuespen hori kentzea eskatzen duena.

Horrenbestez, honako galdera hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

Ba al duzue txosten juridikorik 21/2018 Foru Legean taxi-lizentzien eskualdagarritasuna dela eta ezarritako arau orokorraren salbuespena legearen arabera dela babesten duenik?

Arartekoaren gomendioa eta iradokizuna aintzat hartuko al duzue eta, horrenbestez, aldaketa bultzatuko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia

## 11-24/PES-00300. Galdera, migratzaileen harremana hobetzeko neurriei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrás jaunak egindako galdera, migratzaileen harremana hobetzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilari Begoña Alfaro García andeari, idatziz erantzun dezan:

Jakin nahi dugu zer neurri hartzen ari den zure departamentua migratzaileen eta administrazio publikoen arteko harremana hobetzeko, bereziki egoera erregularizatu gabean dauden pertsonen kasuan. Esaterako, Migrazioei buruzko Orientazio eta Informazio Zerbitzuaren bidez erregularizatu gabeko egoeran duden migratzaileek aurretiazko hitzordua eskatzen ahal dute administrazio publikoaren zerbitzuetan, hala foru-erkidegokoetan nola tokiko edo estatukoetan?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrás

## 11-24/PES-00301. Galdera, Bidean ente instrumental deklaratzeari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Bidean ente instrumental deklaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Gobernuak zergatik ez du oraindik Bidean ente instrumental izendatu? Ba al dago arazorik? Noiz du hori egiteko asmoa?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea



## **11-24/PES-00302. Galdera, Bidean enpresa publikoa abian jartzearen kostu ekonomikoari buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 10e an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Bidean enpresa publikoa abian jartzearen kostu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zer kostu ekonomiko aurreikusten da guztira Bidean enpresa publikoa abian jartzeko, kontzeptuen arabera xehakaturatuta?

Iruñean, 2024ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea





